

PROGRAMA
EUSKERA

URRIA AZAROA ABENDUA 2022



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

gizartea eta kultura
garaikidea

Bilbao

«Gure errealitatea begiratzeko dugun
moduaren emaitza da; nolabait ere, ikusten
dugu ikusgai izan nahi duguna»

Manuel Rodríguez. Koreografoa

**eszenAZ 2022-2023. Azkuna Zentroko
Arte Eszenikoen Denboraldia**



- 7 Zinema, eszena eta praktika artistikoa
- 10 Hiruhileko honetan gurekin izango dira...

PROGRAMAZIOA

- 14 *Somewhere from here to heaven*. Erakusketa
- 17 [Antonio Fernández Alvira](#). *Memoria de forma*. Instalazioa
- 18 *Zientzia frikzioa*. Erakusketa
- 20 [Elena Aitzkoa](#). Artista AZ-kidea. *Ur aitzak*.
- 21 [M. Benito Piriz](#). *MI C4R4 NO P3G4 CON 3ST3 MUNDO*. Babestu. sorkuntzan laguntzeko programa
- 23 [artxiboAZ](#). Artxiboa
- 24 [Ander Pérez](#). *Ágil y un placaje*
Babestu. sorkuntzan laguntzeko programa
- 25 [Blanca Ortiga](#). *Shifter!*
Babestu. sorkuntzan laguntzeko programa
- 26 [Jonathan García Lana a.k.a. Tunipanea](#). *El íntimo ritmo del azar: diálogos entre máquinas imperfectas*
Babestu. sorkuntzan laguntzeko programa
- 27 [Miguel A. García aka Xedh](#). *Comclapompos. Usar el flujo como un cauce*. Musika esperimentalta / Kontzertua
- 28 [Urbanbat](#). *Behatokia. Escenario de Crisis_1: Contaminación y crisis sanitaria*. Kolektibo egoiliararen programa
- 29 [Ion Munduate](#). *Rosas en el viento*. Dantza
- 31 [AZ Irratia](#). [Isabel de Naverán](#). *La ola en la mente. Oralidad secundaria*
- 32 [Amalia Fernández](#). *Neti Neti*. Performancea
- 34 [Guillermo Weickert](#). *Parece nada*. Dantza
- 35 [Manuel Rodríguez](#). *Screensaver*. Performancea
- 36 [Mikel R. Nieto](#). *Presentense*. Soinu-instalazioa





- 37 N. Andorra + S. Luque. Musika esperimentalta
- 39 Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan. Zinema eta ikus-entzunezkoak
- 40 Zinemateka. *Somewhere from here to heaven*. Zinema eta ikus-entzunezkoak
- 42 Irakurketa-kluba. *Munduko literatura*. Literatura
- 43 "This is Basque Design" Merkatua
- 45 BIME. All about music & more
- 45 Berbagunea
- 45 Bilbao European Encounters
- 45 Euskaraldia. Hitzez ekiteko garaia

SORKUNTZA ARTISTIKOKO PROIEKTUAK

- 48 Sorkuntza garaikidean laguntzeko programa
- 49 Babestu. Sorkuntza garaikideari laguntzeko programa
- 50 Artista AZ-kideak
- 51 Ikertzaile AZ-kideak
- 51 Kolektibo egoilarra
- 52 Open call AZren deialdiak 2022 - 2023

HEZKUNTZA PROGRAMA

- 54 Zinema-elkarrizketak. Argiak, kamera... ekin!
- 54 Ezinbesteko komikigileei buruzko elkarrizketak eta podcasta
- 55 Victoria Ascaso. Tailerra
- 56 Musika esperimentalaren hastapenetako tailerrak
- 61 DJ Amsia. Hotsetan, musika esperimentaleko eta soinu-arteko programa

AZ

- 60 Bisita programa
- 62 Osasun Premium: Ariketatik harantz
- 63 Azkuna Zentroa argitalpenak
- 65 Informazio orokorra





1940



LA CULTURE

La culture est un ensemble de pratiques, de savoirs, de valeurs et de symboles qui se transmettent de génération en génération. Elle est au cœur de notre identité collective et contribue à notre bien-être et à notre développement.

PROJET

Le projet est un ensemble d'actions coordonnées et cohérentes visant à atteindre un objectif précis. Il implique une planification, une mise en œuvre et un suivi-évaluation.

CENTRE DE PROGRAMMATION CULTURELLE

Le Centre de Programmation Culturelle est un espace dédié à la programmation et à la médiation culturelle. Il propose des ateliers, des conférences, des expositions et des événements culturels.



ART CONTEMPORAIN

L'art contemporain est un mouvement artistique qui s'est développé à partir des années 1960. Il se caractérise par une grande diversité de styles et de médiums.

ARTS VIVANTS


Les arts vivants sont des pratiques artistiques qui se déroulent en temps réel devant un public. Ils incluent le théâtre, la danse, le cirque et le spectacle vivant.

CINEMA ET AUDIOVISUEL

Le cinéma et l'audiovisuel sont des médiums artistiques qui utilisent l'image et le son pour raconter une histoire ou transmettre un message.

CULTURES AUDIOVISUELLES

Les cultures audiovisuelles sont des pratiques culturelles qui utilisent les médias audiovisuels pour créer et partager du contenu.



AZK
ALH

Zinema, eszena eta praktika artistikoa

Azken hiruhilekoko programazioa egituratuko da zinema-sorkuntzaren, eszena garaikidearen kode berrien eta Lantegia-Ideien laborategian egoiliarra den komunitate artistikoarekin partekatutako praktikaren inguruan.

eszenAZ, Arte Eszenikoen Denboraldia, urriaren 6an abiatuko da, Amalia Fernández artistaren azken proiektua den *Neti Neti* lanarekin. Lau orduko esperientzia horretan, publikoa erritual eszeniko horren parte izango da; errituala hainbat paisaiaz osatuta dago, praktika desberdinetatik abiatuta. Programak aurrera egingo du Guillermo Weickert koreografoaren *Parece nada* lanarekin, zeina gonbit bat den zentzumenen bidez nor bere burua ezagutzeko ariketa bat egiteko; eta *Screensaver* bakar-saio eszenikoarekin, non Manuel Rodríguez dantzari eta artista bisualak hizkuntza artistiko desberdinak aurrez aurre jartzen dituen, gizakiaren eta software informatikoaren arteko harremana bideratzeko. eszenAZ-en hasiera atea zabaltzeko urteko jardunaldiaren barruan kokatzen da. "Open studios" horretan, artista eta ikertzaile AZkideek, Babestu programako sortzaileek eta zentroko kolektibo egoiliarrek prozesuak eta esperientziak partekatzen dituzte, eraldaketa pertsonalerako bide gisa, praktika artistikoaren bidez.

Urriaren 28tik aurrera, *Somewhere from here to heaven* erakusketak zinema erakusketa-aretoan sartuko du, 1960 eta 1970eko hamarkadetako "funtsezko" zinemagilea izan zen Bruce Baillie-ren unibertsoaren bidez. Haren poetika, argiaren bilaketa, naturan dagoen esentzia espirituala aurkitzeko bulkada dira sorkuntza esperimentalaren eta mugimenduan dagoen irudiaren erreferente garaikideek diren Ana Vaz, Ben Rivers, Eduardo "Teddy" Williams eta Apichatpong Weerasethakul zinemagileek zentroaren ekoizpen berri honetarako egindako lanen inspirazioa. Proiektua Zinematikara hedatuko da, zinema garaikideko eta historiko esperimentaleko ziklo banarekin, esperientzia bisualaren eta esperientzia zinematografikoaren artean kokatuta.

Lehenago, eta Donostian oihala jaitsi ondoren, Azkuna Zentroko zinema-aretoetara iritsiko da zinema-praktika garaikidearen erakusgarri diren Donostiako Zinemaldiko filmen aukeraketa.

ATEAK ZABALIK

SORKUNTZA ARTISTIKORAKO

URRIAK 6, OSTEGUNA

#PROGRAMA

OPEN STUDIOS

17:00-21:00

AMALIA FERNÁNDEZ. *Neti Neti*

17:30-18:00

ANDER PÉREZ. *Aurkezpena: Ágil y un placaje*

18:00-20:00

ANDER PÉREZ. *Ágil y un placaje*

18:00-20:00

dendAZ. This is basque design

ABANA BILBAO, AILANTO, AMAKUYI, AMARENAK, ANE PIKAZA, ANGÉLICA BARCO, COOKPLAY, EDER AURRE, ELENA CIORDIA, EKOMODO, ESPACIO AERRE, FABDEFAB, FROM THE BASQUE COUNTRY, HIGI VANDIS, KATXI KLOTHING, MALÚS ARBIDE, MARIO GAZTELU, MARIO PANIEGO, MRLASPIUR, PALO PALÚ, PILAR MORQUILLAS, PROYECTO HEMEN, SUSANA BLASCO, TYTTI THUSBERG, YOLANDA SÁNCHEZ, ZIORU, ZIRIAK

| | |
|--------------------|--|
| 18:00-20:00 | ARGITALPENAK + ARTXIBOAZ |
| 18:00-20:00 | AZ IRRATIA |
| 18:00-20:00 | BLANCA ORTIGA. <i>Shifter!</i> |
| 18:00-20:00 | ELENA AITZKOA. <i>Ur Aitzak. Ciénaga estrellada</i> |
| 18:00-20:00 | ISABEL DE NAVERÁN. <i>La ola en la mente. Oralidad secundaria</i> |
| 18:00-20:00 | JONATHAN GARCÍA LANA / TUNIPANEA. <i>El íntimo ritmo del azar: diálogos entre máquinas imperfectas</i> |
| 18:00-20:00 | VICTORIA ASCASO. <i>So Sad Today. RE:TR1ST3S</i> |
| 18:00-20:00 | LAIDA LERTXUNDI. <i>8 topaketa</i> |
| 18:00-20:00 | MACARENA RECUERDA SHEPHERD. <i>Cosa. Intervenir un cuerpo</i> |
| 18:00-20:00 | URBANBAT. <i>Behatokia.</i> <i>Escenario de Crisis_1: Contaminación y crisis sanitaria</i> |
| 18:00-20:00 | ANTONIO FERNÁNDEZ. <i>Memoria de forma</i> |
| 18:30-19:30 | TRACTORA KOOP E. <i>Kinu</i> |
| 19:30-20:00 | M. BENITO PÍRIZ. <i>Celeraka X Panda.</i> <i>M1 C4R4 NO P3G4 CON 3ST3 MUNDO</i> |
| 20:00-21:00 | MIGUEL A. GARCÍA. <i>Comclapompos. Usar el flujo como un cauce</i> |
| 21:00-22:30 | DJ FÉLIX DANIEL |

#ARTISTAK

Elena Aitzkoa | Aimar Arriola | Victoria Ascaso | M. Benito Píriz |
Amalia Fernández | Antonio Fernández | Miguel A. García | Laida
Lertxundi | Ion Munduate | Isabel de Naverán | Blanca Ortega |
Ander Pérez | Macarena Recuerda Shepherd | Tractora Koop E. |
Tunipanea | Urbanbat

Hiruhileko honetan gurekin izango dira...

Artistak, komisarioak, kultura-eragileak... Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko programazioa diziplina desberdinetako pertsonen konplizitatearen emaitza da, haiek gure proposamenak balioesten eta aberasten baituzte, era askotako ikusleen komunitatei zuzendutako ekarpenekin. Hiruhileko honetan gure artean izango ditugun proiektuak eta pertsonak erakutsiko ditugu hemen, aurretik abian jarri ditugun elkarrizketen parte direnak.



Laida Lertxundi
Artista AZ-Kidea



Usue Arrieta
Artista



Oier Iruretagoiena
Artista



@ Lorea Alfaro 2021

Isabel de Naverán
Ikertzailea, editorea
eta komisarioa.
Ikertzaile AZ-Kidea



Ainara Elgoibar
Artista



Aimar Arriola
Komisarioa eta ikertzaile
AZ-Kidea




Antonio Fernández Alvira
Artista



Elena Aitzkoa
Artista



Guillermo Weickert
Koreografoa eta
eszena-zuzendaria




Manuel Rodríguez
Diziplina anitzeko artista



Nùria Andorrà
Artista



Amalia Fernández
Performer



M. Benito Píriz
Artista



Ion Munduate
Koreografoa eta
ikertzailea



Jonathan García Lana
Artista



Victoria Ascaso
Artista



Ander Pérez Puelles
Artista



Macarena Recuerda
Shepherd
Artista



Urbanbat
Hiri-Berrikuntza
Bulegoa



Blanca Ortiga
Artista



Judy
(Iker Ruiz de Apodaka)
Artista



DJ Amsia
Artista



Mikel R. Nieto
Komisarioa, artista eta
ikertzailea



Miguel A. García
Artista

Somewhere from here to heaven

ERAKUSKETA



**Apichatpong
Weerasethakul**
Zuzendaria, ekoizlea
eta zinema-gidoigilea

© Victoria Pereda



Eduardo Williams
Zinemagilea



Ben Rivers
Artista eta zinemagile
esperimentalta



Ana Vaz
Artista eta zinemagilea



Garbiñe Ortega
Komisarioa

Zientzia frikzioa

ERAKUSKETA



**Shoshanah Dubiner
& David Domingo
(aka Stanley
Sunday)**
Artistak



John Feldmann
Zinemagilea

© Hummingbird Films



Rubén Duro
Biologoa, dibulгатzaile
zientifikoa, argazkilaria

© Julien Felix



Dominique Koch
Artista bisuala



Petra Maitz
Artista bisuala



Susana Talayero
Artista bisuala



Maria Sibylla Merian
Naturalista,
esploratzailea eta
margolaria

© Matti Pyykka



Terike Haapoja.
Artista bisuala

© Matti Pyykka



& Laura Gustafsson.
Idazlea eta
dramaturgoa

© Ars Electronica, CC BY-NC-ND 2.0



Mary Maggic
Artista


© Ars Electronica, 2019, CC BY-NC-ND 2.0



Saša Spačal
Artista postmedia



Pinar Yoldas
Arkitektoa, artista
eta ikertzaile
infradisziplinarioa



Diana Toucedo
Zinemagilea eta
muntatzailea



Ernesto Casero
Artista



Richard Pell
Artista, ekintzailea eta
ikertzailea



Marley Jarvis.
Biologian doktorea eta
dibulгатzaile zientifikoa
Laurel Hiebert.
Biologian doktorea
& Kira Treibergs.
Itsas biologian
doktorea

© Ramon Churrucua



María Ptqk
Komisarioa, kritikaria
eta kultura-ikertzailea



Somewhere from here to heaven

Bruce Baillie

Ben
Rivers

Eduardo
Williams

Apichatpong
Weerasethakul

Ana
Vaz

ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA
URRI. 28 > OTS. 26

Somewhere from here to heaven

Komisarioa: Garbiñe Ortega

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok *Somewhere from here to heaven* aurkeztuko du urriaren 28an. Zentroaren erakusketa-ekoizpen berriak baliabide zinematografikoaren aukerak aztertzen ditu, erakusketa-espazio batean, zinemaren ideia birpentsatu nahian "new media"ren aro honetan.

Somewhere from here to heaven erakusketak Bruce Baillieren film-unibertsoak inspiratutako belaunaldi ezberdinetako artisten konstelazio bat marrazten du.

Bruce Baillie ezinbesteko zinemagile bat izan zen 1960ko hamarkadan: abangoardia zinematografiko iparramerikarraren garrantzitsuenetako bat eta «zinema esperimentalak» delakoaren sustatzaile handi bat.

Erakusketak bi zati ditu. Lehen Bailliek eta Chick Strandek, Gunvor eta Robert Nelsonek, Lawrence Jordanek eta beste batzuek, 1940ko eta 1950eko hamarkadetako ekimenek inspiratuta, San Francisco Cinematheque elkarteak eta Canyon Cinema kooperatiba sortu zuten garaira hurbiltzen da.

Bigarrenak Azkuna Zentroak Baillieren iruditeriak inspiratuta lan berriak sortzeko gonbidatu dituen lau artistaren lana hartzen du. Hona aipatu artistak: **Apichatpong Weerasethakul** (Thailandia), **Ben Rivers** (Erresuma Batua), **Ana Vaz** (Brasil) eta **Eduardo Williams** (Argentina). Bruce Baillieren eta bere lanen unibertsoarekin elkarriketan sartuko zen ikus-entzunezko pieza bat egitea proposatu zitzaion. «Etengabeko bidaia, naturaren eta gizarte modernoaren arteko sinbiosia, argiaren bilaketa intuitiboa eta gauzen esentzia espiritualak aurkitzeko bultzada dira proiektu hau ehuntzen duten ideietako batzuk, artea bizitzeko eta ulertzeko modu batekiko konpromiso sakon batek sostengatuta. Ideia hori bost artista hauen praktikaren erdigunean dago», nabarmendu du **Garbiñe Ortega** proiektuaren komisarioak.

////////////////////////////////////

Urriaren 28tik otsailaren 26ra

Erakusketa Aretoa

Sarrera doan

////////////////////////////////////

Inaugurazioa

Urriaren 28a, ostirala

17:30 Topaketa.

Garbiñe Ortega, Ana Vaz, Ben Rivers y Teddy Williams, Apichatpong Weerasethakul (online).

Sarrera librea (webgunean izena eman behar da alde aurretik)

19:00 Erakusketaren bisita

Sarrera doan

////////////////////////////////////

Somewhere from here to heaven proiektuaren barruan, Zinematekak bi zinema-ziklo programatu ditu: garaikidea eta historiko-esperimentalak.

Informazio gehiago 40. orrian



Apichatpong Weerasethakul



© Victoria Pereda

Eduardo Williams



Ben Rivers



Ana Vaz

ERAKUSKETAK

2022KO URRIAREN 28TIK 2023KO OTSAILAREN 26RA

Somewhere from here to heaven

Komisarioa: Garbiñe Ortega

ERAKUSKETA ARETOA

EKAINAREN 9TIK URRIAREN 30ERA

Antonio Fernández Memoria de forma

TERRAZA

2022KO AZAROAREN 29TIK 2023KO OTSAILAREN 26RA

Zientzia frikzioa Bizitza espezie lagunen artean

Komisarioa: María Ptqk

LANTEGIA 1

2022KO URRIAREN 6TIK 2023KO URTARRILAREN 8RA

artxiboAZ

Azkuna Zentroko Artxiboaren 12 urte

MEDIATEKA GALERIA

2022 -2023

Antonio Fernández Alvira

Memoria de forma

Antonio Fernández artistak *Memoria de forma* (*Forma-memoria*) aktibatu zuen ekainean, Azkuna Zentroko Terrazako espazio zehatzerako sortutako instalazioa.

Pieza eskulturikoen multzoak –ontziak eta buztinezko tinak– harremanean jartzen ditu Alhóndigak fluidoan edukiontzi gisa antzina izan zuen erabilera eta gaur egun eduki kulturalen ontzi gisa duen funtzioa.

«Bi produktu horiek —ardoak eta olioak— dentsitate desberdina duten elementu jariakorrak dira, ez dute forma zehatzik, eta, beraz, edukiontzi fisiko bat behar zuten gordetzeko eta biltegitara ahal izateko», gogoratu du artistak. «Ezaugarri edo propietate horri "formaren memoriarik eza" esaten zaio, hau da, barnean hartzen dituen ontziaren forma hartzen dute fluidoek, eta ez dago berreskuratze elastikoko indarrrik, solidoetan bezala».

Zentroko ekoizitako proiektuak eskultura-laboretegiaren itxura hartzen du, eta edukiontziaren eta fluidoaren arteko erlazio hori aztertzen du, gorputzaren eta arkitekturaren arteko erlazio batera ere hurbilduz.

Era berean, Antonio Fernández Alvirak laboretegi hau planteatzen du iragazkor izan dadin Bilboko klimatologiak bertan egin ditzakeen ekintzekiko, esaterako, euri-urak eskulturen formak hartzen dituenean, haietan biltegitaruta ere geratuz; edo haizeak piezetatik igarotzean sortzen duen sonoritatea.



Urriaren 30era arte

Terraza



 antoniofernandezalvira.com


 [antoniofernandezalvira](https://www.instagram.com/antoniofernandezalvira)

 [antonio fernandez alvira](https://www.facebook.com/antonio.fernandez.alvira)

 [AntonioFAlvira](https://twitter.com/AntonioFAlvira)



Memoria de forma



ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA
AZA. 29 > OTS. 26

Zientzia frikzioa

Bizitza espezie lagunen artean

Komisarioa: Maria Ptqk

Ingurumen-biologiako eta -zientzietako azken aurrerapenek erakusten dutenez, Lurreko bizitza guztia interdependentea da. Ikuspegi horri jarraituz, bizirik dagoena organismo eta ekosistemen arteko korapilatzeekin –batzuk besteetan integratutako anizkoitzasun biziak– egindako ehun bera eta bakarra da.

Zientzia frikzioa ikuspegi-aldaketa hori esploratzen du, gaur egun ezinbestekoak diren bi emakumezko zientzialari eta pentsalariren lanetik abiatuta. Batetik, Lynn Margulis biologoa. Hark, sinbiosiak eboluzioan jokatzen duen rolari buruzko bere teoriarekin, bizitzaren historia berri baterako oinarriak jarri ditu. Eta, bestetik, Donna Haraway filosofo eta biologoa. Haren lanak ezagutza zientifikoaren eta hori munduari eta bertan hartzen dugun tokiari buruzko «kontakizunen makina» izatearen narrazio-potentzia aztertzen ditu.

Beraz, izenburuaren zientzia frikzioak bi zentzu ditu, *Maria Ptqk* erakusketaren komisarioak azaltzen duenez. Batetik, bizitza mihiztaketa sinbiotiko handi bat bezala ikustearen ondoriozko frikzioak aipatzen ditu eta, bestetik, bestelako zientzia f(r)rikzio batzuk, pentsa daitekeena handitzen duten eta sortzen ari den interespezie-paradigman kokatzen lagunduko diguten istorio asmatu eta espekulatiboak, asmatzeko premiari egiten dio erreferentzia. «Egia bada, Harawayk eta Margulisek dioten bezala, Lur guztia bizirik dagoela, gailentasunaren mitoa baztertzeko eta berriz ere lurreko gure lagun ugariekin kontaktuan jartzeko garaia da».

MARÍA PTQK Ikerketa Artistikoko doktorea, eta Doktorego Sari Berezia (UPV/EHU). 2000az geroztik dihardu kulturaren sektorean, artearen, teknozientziaren eta feminismoen arteko intersekzioetan. Komisarioritzako, proiektu-koordinazioko eta aholkularitzako lanak egiten ditu. Honako hauekin egin du lan, besteak beste: Medialab Prado (Madril), Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao, Daniel eta Nina Carasso Fundazioa, Bartzelonako Kultura Garaikideko Zentroa (CCCB), Jeu de Paume Arte Bisualen Zentroa (Paris), La Gaité Lyrique (Paris), GenderArtNet (European Cultural Foundation) eta Donostia-San Sebastián 2016. Kulturaren Europako Hiriburua. Kulturaren Euskal Kontseiluko kide izan da (2009-2012), eta Consonni argitaletxe eta arte-ekoiztetxeko aholkularitza-taldeko kidea da. *Zientzia frikzioa*. *Bizitza espezie lagunen artean* erakusketaren komisarioa izan da CCCBn eta Azkuna Zentroan.

////////////////////////////////////

2022ko azaroaren 29tik
2023ko otsailaren 26ra

Lantegia 1

////////////////////////////////////

ARTISTAK:

Shoshanah Dubiner & David Domingo, John Feldmann, Rubén Duro, Dominique Koch, Petra Maitz, Susana Talayero, Maria Sibylla Merian, Terike Haapoja & Laura Gustafsson, Institut for PostNatural History, Mary Maggic, Museo del Hongo, Saša Spačal, Pinar Yoldas, Diana Toucedo, Marley Jarvis, Laurel Hiebert & Kira Treibergs, Ernesto Casero.

////////////////////////////////////

Koprodukzioa:

CCCB Centre de Cultura Contemporània de Barcelona

Elena Aitzkoa

Artista AZ-kidea

Ur aitzak

*Ekarri paisaiaren ingurua zulo sutsu batera
Zingira izartsua!*

*Islak, erresonantzia eta pultsua -kurba leuna-
Argi-itzalak beso eta aurpegietan, oinez doazela
Belarrira mintzatu bizkar ganbiletik*

Azkuna Zentroko artista AZkide Elena Aitzkoak *Ur aitzak* aurkeztuko du, artistaren motibazio pertsonal batetik abiatzen den sorkuntza proiektua. Zentroaren desirari eta aukerari erantzuten dio, «herritarrekin bat egiteko eta, nolabait, bere eraldaketa sentikorraren parte aktibo izateko», artistak azaldu duenez.

Ur aitzak zortzi eskulturak osatzen dute, Kulturen Atariko espazioan pixkanaka sortzen joango direnak, ahots- eta poesia-lan bati lotuta beti. Lehen etapa honetan, Elena Aitzkoarekin batera, proiektua ulertzen, bultzatzen eta hari eusten lagunduko duten hainbat konplize egongo dira.

«Mugimendu oro lagundua da beti, sinergia mugimenduaren gorputzaren zati bat da. Era berean, edertasun bilakatzea kolektibo baten barne-ezagutzaranzko mugimendu lagundu baten ondorio naturala da», gogorarazi du sortzaileak.

Urriaren 6an, [Sormen Artistikorako Ate Irekien Egunarekin bat](#), Elena Aitzkoak *Ciénaga estrellada* izeneko lehen eskultura aurkeztuko du.

ELENA AITZKOA. Esteak beste, eskulturaren, marrazketan, poesian, performancean eta zineman aritzen da. Haren sorkuntza-lanak ekosistema heterogeneo bat dira, eta ingurunekeko elementu fisikoak eta emozionalak eta bizi-esperientziak dituzte oinarrian. Materiaren konfigurazio poetikoan jartzen du fokua eta sormen-energia, eta edertasunean ere bai, izakien arteko lotura-elementu gisa. Bere azken proiektuen artean, *Lendia Song* (Azkuna Zentroa, Bilbo, 2021) erakusketa nabarmentzen da. Isabel de Naveránek Reina Sofia museoa komisariatutako *Estudio III. Salir al Encuentro. Hablar al lugar* zikloan (2021) parte hartu zuen.



Ur aitzak

Kulturen Ataria

Sarrera doan

**ATEAK
ZABALIK**

SORKUNTZA ARTISTIKORAKO

Urriak 6

18:00-20:00

Lehen pieza aurkeztea

Kulturen Ataria

M. Benito Píriz

M1 C4R4 N0 P3G4 C0N 3ST3 MUNDO

Prozesuen aurkezpena Aimar Arriolarekin batera

Mary Poppins haurrentzako liburuen sortaren (P. L. Traversek idatzi zituen 1934aren eta 1988aren artean) pasarte jakin batean, haurtzain protagonista erakusleiho baten aurrean gelditzen da apaindu eta txapela ondo jartzeko. Erakusleihoaren kristalak bere buruaren hiru isla itzultzen dizkio Mary Poppinsi, ez bat. Maryk hasperen egiten du, bere buruaren isla hirukoitza ikusita; ez da asaldatzen. Irudi ikusgarri hori –bere buruaren irudia zatikatzen du eta, aldi berean, biderkatu egiten du, eta, horrekin batera, baita nortasunaren edozein nozio egonkor ere–, saio honetan, lan-prozesu bat partekatzeko abiapuntua da.

Edizio-saio ireki bat izango balitz bezala, [M. Benito Píriz](#) artistak, [Aimar Arriola Ikertzaile AZ Kidearekin](#) batera, *Mi cara no pega con este mundo* bere proiektuaren idazketaren eta edizioaren zati bat partekatuko du. Mugikorreko ohar-blokean idatzi duen prozesu-liburu bat da. Hiztegi prediktiboaren, hizkuntza inklusiboaren eta beste baliabide batzuen bidez, proiektuak literatura lantzen du bere molde konbentzionalen, eta molde horretan harridura sortu nahi du.

Jarduera hau [Babestu. Sorkuntzan Laguntzeko Programaren](#) eta [Un deseo de forma](#) (2020-2023) proiektuaren esparru bikoitzean gertatzen da. Proiektu hori, bada, Aimar Arriola Ikertzaile AZ Kidearena da, eta queer ikuspegiaren eta artearen arteko harremanak ikertzen ditu zentroaren programazioaren barruan.

M. BENITO PÍRIZ (1992, Zaldibar) Arte Ederretan graduduna da UPV/EHUn (2014) eta Ikerketa eta Sormena Artean Masterra du (2015) unibertsitate berean. Getxoarte lehen saria 2019an eta hirugarren saria Errioxako Muestra Arte Jovenen. BilbaoArte Fundazioaren beka jaso du banakako erakusketarekin, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiarena ere, bitan. *The Most Dramatic Panda Ever* poema-bilduma errezitatu du Bilbao Art Districten, Azkuna Zentroan, bai eta HARRIAKEN (Balmaseda) eta Bulegoa z/b-n (Bilbo).



Urriak 19, asteazkena

18:30

Lantegia 1

Entrada libre aurretiaz
izena emanda



**ATEAK
ZABALIK**

SORKUNTZA ARTISTIKORAKO

Urriak 6

[M. Benito Píriz](#)

Ekintza performatiboa

Bastida Aretoa

Sabadell
Fundación

Banco Sabadell Fundazioa elkarlanean ari da Babestu. Sorkuntzari laguntzeko programarekin, artea eta kultura sustatu eta zabaltzeko dituen helburuak betetzeko.

gutun zuria bilbao

**AZKUNA ZENTROKO
LETREN NAZIOARTEKO JAIALDIA**

2023KO MARTXOAREN 27TIK APIRILAREN 1ERA

Gehiago jakin nahi duzu? Jarraitu informazio guztia
hemen: gutunzuria.azkunazentroa.eus

artxiboAZ

Sorkuntza garaikideko gordailu digitala

Urriaren 6an aktibatuko da artxiboAZ, Azkuna Zentroaren kultura-programazioaren gordailu digitala. Tresna hau sorkuntza garaikidea ulertzeko sortu da, eta hiru alderditatik planteatzen da: "artxibo instituzionala", zentroan izan den ekoizpen artistikoa jaso, sailkatu eta zabaltzeko; "sorkuntza eta bitartekaritza", artistek beren ekoizpenerako eta artea ikusleen komunitateetara hurbiltzeko erabil ditzaketen edukiak eskaintzeko, eta "memoriaren bermatzailea", euskal sorkuntza garaikidearekin zerikusia duten mota guztietako edukien gordailu gisa.

Edukiak 11 komunitatetan eta 31 bildumatan egituratuta daude, eta Azkuna Zentroaren programazio-ildoak eta ardatz estrategikoak islatzen dituzte: arte bisualak, arte biziak, sorkuntzarako laguntza, zinema eta ikus-entzunezkoak, kultura digitalak, literatura, hedabideak eta argitalpenak, hezkuntza-programa, irratia, gizartea eta saiakera-gunea.

Plataforma berriak aukera ematen du kartelak, aretoko orriak, liburuxkak, aldizkari-orriak, prentsa-dosierrak eta ikus-entzunezkoak (argazkiak, audio gidak, podcast-ak eta bideoak) ikusteko eta deskargatzeko. Gainera, artxiboAZ Mediateka BBKren katalogoarekin lotuta dago, eta zentroarekin zerikusia duten artisten eta kultura-eragileen profilen datu-basea du.

Azkuna Zentroaren artxiboa zentroaren webgunean egongo da eskuragarri, eta, lehen hilabete hauetan, gune espezifiko bat izango du Mediateka Galerian, haren funtzionamendua zehatzago ezagutzeko.



2022ko urriaren 6tik 2023ko urtarrilaren 8ra arte.

Mediateka Galeria
Sarrera dohainik



**ATEAK
ZABALIK**
SORKUNTZA ARTISTIKORAKO

Urriak 6
Mediateka Galeria



Ander Pérez

Ágil y un placaje

Ander Pérez artistak mugimenduaren eta grabazioaren ezaugarrien inguruko ikerketa aurkeztu du –Babesturen esparruan hasi du aurten–. [Azkuna Zentroaren Sorkuntzan Laguntzeko Programa](#).

Artistak *Ágil y un placaje* proposatu zuen grabaketetarako objektuak sortzeko asmoz. Hala ere, azaldu duenez: «Objektuek leku periferikoago bat hartu dute, prozesuaren alderdi azalekoago eta mekanizistago horretan bakarrik ez geratzeko». «Intuizioa zuzena izan da, mugimenduan dagoen irudia eraikitzeak erakarri egiten nau oraindik ere. Musikaren antzekoa iruditzen zait, bietan zuzeneko feedback bat gertatzen baita ekintzaren eta emaitzaren artean», gehitu du.

Ágil y un placaje «iraileko erakusketarekin amaitzen ez den» ikerketa-prozesu baten hasiera da. Are gehiago, proiektua, Ander Perezentzat, «hasiera oso indartsua izan da; zenbait lan-ildo azken hilabeteetan taxutu dira, eta, beraz, Ágil y un placaje izenburuak ez dio horietako bati ere erantzuten».

ANDER PÉREZ (Laudio, 1996) UPV/EHuren Ikerketa eta Sormena Artean Masterra du. Itziar Okarizek, Jon Mikel Eubak eta Fernando Castro Florezek artistentzako egindako tailerretan parte hartu du, bai eta, besteak beste, *Barruko tekniken estudioak*, *Steve Paxtonen inguruko mintegia topaketan* ere. *BldeOtik*, *Kinu* (Azkuna Zentroa) eta beste proiektu batzuetan parte hartu du, bai eta erakusketa hauetan ere: *Ertibil 2018* (Bizkaiko Foru Aldundia), *SEÑAL*, 2019 (Okela Somen Lantegia) eta *XENA*, 2021 (Harriak programa). 2020an, artista egoiliarren beka jaso zuen BilbaoArten.



Ágil y un placaje



Irailaren 26tik urriaren 9ra
Fernández del Campo aretoa
Sarrera doan



ATEAK ZABALIK

SORKUNTZA ARTISTIKORAKO

Urriak 6

17:30-18:00

Aurkezpena

Lantegia 3

18:00-20:00h

Materialak erakustea

eta lan-prozesua

Sala Fernández del

Campo

Sabadell
Fundación

Banco Sabadell Fundazioa elkarlanean ari da Babestu. Sorkuntzari laguntzeko programarekin, artea eta kultura sustatu eta zabaltzeko dituen helburuak betetzeko.

Blanca Ortiga

Shifter!

Blanca Ortigak Shifter! aurkeztuko du, eskulturaren eta performatibitatearen arteko elkargunean dagoen proiektua.

Shifter! proiektuak –hizkuntza-tradizioak abiadura-palanka formako gailuari deitzeko darabilen hitza– material bakoitzaren eta gorputz bakoitzaren berezko ezaugarriekin lan egiten du, desbideratzeari erantzuteko ikerketa-modu gisa, non eskultura-egoerak eta ekintza ingurune performatiboetan egituratzen diren.

«Erresistentzia, malgutasunaren eta masaren arteko tentsioa, inertzia, gorputz batek jasan dezakeen ahalegina, edo materialen nekea bera hautsi aurretik, indar bizitzat hartzen dira, eta haien elkarketak gai dira materialtasunean performatibitatea aktibatuzeko», azaldu du sortzaileak.

Blanca Ortigak *Shifter!* garatu du Azkuna Zentroaren Babestu. Sorkuntza Artistiko Garaikideari laguntzeko programaren esparruan.

BLANCA ORTIGA. (Hornos de Moncalvillo, 1984) Artista eta arte garaikideko ikertzailea. Eskulturaren eta performatibitatearen arteko harreman-puntuan kokatzen da bere praktika. Bere lana banaka eta taldean aurkeztu da, Mataderon (Madril, 2022), Actual Jaialdian (Errioxa, 2022), Instar Nazioarteko Jaialdian (Kuba, 2021), Tetuango Arte Modernoko Musean (Maroko, 2019), Jorge Alcolea Galerian (Madril, 2018), AFO Architekturforum Oberösterreich-en (Austria, 2017), Montehermoso Kulturunean (Gasteiz, 2016), Teatros del Canal-en (Madril, 2015), beste batzuen artean.



Shifter!



Urriaren 6tik azaroaren 27era

BAT Espazioa



**ATEAK
ZABALIK**

SORKUNTZA ARTISTIKORAKO

Urriak 6

18:00-20:00

Materialak erakustea
eta lan-prozesua

Ekintza
performatiboak

BAT Espazioa

Sabadell
Fundación

Banco Sabadell Fundazioa elkarlanean ari da Babestu. Sorkuntzari laguntzeko programarekin, artea eta kultura sustatu eta zabalitzeko dituen helburuak betetzeko.

Jonathan García Lana / Tunipanea

El íntimo ritmo del azar: diálogos entre máquinas imperfectas

El íntimo ritmo del azar: diálogos entre máquinas imperfectas onathan García Lana soinu artista a.ka. Tunipanearen ikerketa-prozesua da, Babestu. Azkuna Zentroaren Sorkuntza Artistikoari Laguntzeko Programaren esparruan egina.

Tunipanea ikerketa praktikotik mugitzen da lutheria esperimental deitutakoaren arloan. «Soinu-artefaktuak diseinatu eta egiteko dauden baliabide mekaniko eta akustiko ugariez jabetzen naiz. Prozesu horri esker, prozesuaren zatirik artisauena egokitu, eraldatu eta nahastu dezaket, eta esploratu nahi ditudan kontzeptuak tartekatu», azaldu du.

El íntimo ritmo del azar: diálogos entre máquinas imperfectas urriaren 21ean irekiko dira jendearentzat, **Garazi Navas** soinu-artistarekin elkarlanean Tunipaneak egindako piezak aktibatuz.

Irekitzean, bertatik bertara ikusi ahal izango da soinu-instalazio batzuk sortzeko prozesua, motorrak, objektuak eta automatikak uztartuz ausazkoa denaren eremua esploratzen duten mekanismoen bidez.



JONATHAN TUNIPANEA.

(Belgika, 1985) Bilbon bizi da eta bertan lan egiten du artista eta artisau gisa. Arte Garaikide, Teknologiko eta Performatiboko Master bat du (UPV/EHU), eta bere interes artistikoko eremua osatu du beste prestakuntza tekniko batzuekin, elektronikarekin, robotikarekin, soinuarekin, artisau-teknikekin eta fabrikazio digitaleko teknikekin lotutako prestakuntzekin.



Urriaren 21etik azaroaren 6ra

Erakusketaren aktibazioa

Tunipena Garazi Navasekin elkarlanean

Urriak 21

19.00

Lab 2



**ATEAK
ZABALIK**

SORKUNTZA ARTISTIKORAKO

Urriak 6

18:00-20:00

Proiektua aurkeztea

Lab 2

**Sabadell
Fundación**

Banco Sabadell Fundazioa elkarlanean ari da Babestu. Sorkuntzari laguntzeko programarekin, artea eta kultura sustatu eta zabaltzeko dituen helburuak betetzeko.

Miguel A. García

Artista AZ Kidea

Comclapompos. Usar el flujo como un cauce

Miguel A. García, Artista AZ Kideak, *Comclapompos. Usar el flujo como un cauce* proiektua garatu du. Ingurunearen sinergiak besarkatzen dituen konposizio musikaleko lan bat da, eta egituraren aukera ugarietan sakontzea eragiten du.

Oso esperimentalak den eta elektroakustikatik hurbilago dagoen ikuskera batetik abiatuta, Miguel A. Garcíairen musika tolestu eta hedatu egiten da ahotsa, dantza, beste hizkuntza batzuk eta beste sentipen batzuk hartzeko, eta formaren deskonposizioa arakutzen du bitarteko gisa.

Bere egonaldia soinuaren bihotzean hainbat topaketa sortzen ari da, eta horiek ikus-entzunezko moduan etengabe erregistratzen ari dira partekatu ahal izateko; era berean, soinu-bilbe zehatz bat egiten ari da, hainbat formatutan argitaratuko dena. Miguel A. Garcíaik azaldu duenez: «Bitartekoa soinua da, eta niretzat jatorria da, baina ez amaiera: bitarteko horretatik abiatzen diren musikari eta artistekin lan egitearekin batera, beste diziplina batzuetara zabaltzea gustatuko litzaidake, baina beti modu organikoan».

Zenbait artistarekin lan egiten du bere proiektuan; hauekin, besteak beste: Elena Aitzkoa, Juan Carlos Blancas, Garazi Navas, Izarne Oyarzabal eta Ibon RG.

MIGUEL A. GARCÍA. Estatuko soinu-artista geldiezinetakoa bat da. Bere lanak konposizioa eta inprobisazio elektroakustikoa hartzen ditu. Gailu elektronikoen hondakinetatik lortutako sonoritateak erabiltzen ditu, eta, askotan, landa-grabazioekin edo tresna akustikoekin erlazionatzen ditu, esperientzia intimo, murgiltzaile eta bizi baten bila. Forma ausarten «musika» bat da, kontrastez betea, umoretsua, eta zalantzan jartzen ditu musika elektroakustiko akademikoaren, musika industrialaren, noisearen, edo outsider musikaren arteko mugak.



Urriak 6, osteguna



**ATEAK
ZABALIK**
SORKUNTZA ARTISTIKORAKO

Urriak 6

Urbanbat

Behatokia. Escenario de Crisis_1: *Contaminación y crisis sanitaria*

Urriaren 6an, Urbanbaten *Behatokia* proiektua hasiko da Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoren Kolektibo Egoiliarren Programaren esparruan. Urbanbat hiri-hobekuntzako ikerketa- eta bitartekaritza-bulegoa da.

Behatokia hiri-behatoki bat da. Situation Room ireki eta parte-hartzaile bat. Dimentsio anitzeko (ingurumenekoa, osasunekoa, ekonomikoa, soziala...) krisi honen testuingurua hirian nola agertzen den eta arteak eta kulturak hiri-bizigarritasuneko baldintzei zer-nola lagun diezaieketen ikus daiteke bertatik.

Behatokia agora formako azpiegitura eramangarri bat da. Tokiko eragileen eta eragile bisitarien arteko elkarrizketarako espazio bat da, gainera; horiek, bada, hiri-erronka garaikideetarako ikerketa- eta ekintza-proiektuak proposatzen ari dira arte- eta kultura-praktiketarik. Programa osatzeko, parte hartzeko dispositibo bat dago: gure inguru hurbileko krisi-egoera honi buruzko datuak biltzea eta ikustea proposatzen dio bisitariari.

Proiektua Zentroko Ate Irekien Jardunaldiaren barruan aurkeztuko da, *Escenario de Crisis_1: Contaminación y crisis sanitaria* landuz eta Olga Subirós eta Diego Sologurenen parte-hartzearekin.

Behatokia, gero, hiriko zenbait puntutan egongo da, arteak eta kulturak hiri-eraldaketetan jokatzeko duten rolari buruzko eztabaida-espazioak irekitzeko.

////////////////////
Kulturen ataria
Sarrera doan
////////////////////

ATEAK
ZABALIK
SORKUNTZA ARTISTIKORAKO

Urriak 6

18:00-20:00

Proiektua aurkeztea eta
lehenengo jarduera

Kulturen ataria



ARTE BIZIAK / DANTZA / PERFORMANCEA
URRI. 6 (Ostg.)

Ion Munduate

Artista AZ kidea

Rosas en el viento

Ion Munduatek, Artista AZ Kideak, *Rosas en el viento* proiektua jarri du abian; hots, esperientzia eta formatu ezberdinen bitartez gertatzen den proposamen bat.

Rosas en el viento fase edo «hegaldi» ezberdinetan banatzen da; elkarrizketa bat ezartzeko eta, beste pertsona batzuekin topaketak eta trukeak izanez, prozesuaren alderdi nabarmenetan sakontzen joateko pentsatuta daude. «Hegaldi» bakoitzean lan-espazio bat egiten da arte-komisario eta -idazle batekin, soziologo batekin, neurozientzialari batekin, filosofo batekin eta beste artista batekin.

Gainera, fase bakoitzak bi «kaixo» saio izango ditu. Gorputz- eta mugimendu-saioak, gutxieneko elementu horien adierazpena keinu, lengoia kodetu batetik kanpoko mugimendu edo bibrazio txiki gisa partekatzen den printzipio gisa. Saio bakoitzak hiru ordu iraungo du, eta bakoitzaren norabidea haize-arrosak zehaztuko du. Beraz, lehena hau izango da: *Entzutea-Keinua-Inkontzientea*.

**ATEAK
ZABALIK**
SORKUNTZA ARTISTIKORAKO

Urriak 6



• AZ

• AZrrratia

The Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao radio station



AZ Irratia.

Azkuna Zentroko irratia

La ola en la mente. Oralidad secundaria

Az Irratiak hiruhileko honetako programazioa aktibatuko du *La ola en la mente. Oralidad secundaria* lanarekin. [Isabel de Naveránek](#) Azkuna Zentroko ikertzaile AZkide gisa garatzen duen proposamena osatzen duten bost gutun dira.

Podcast formatuan, de Naveránek lau gonbidaturekin -[Lorea Alfaro](#), [María García Ruiz](#), [Raquel G. Ibáñez](#) eta [Andrea Soto Calderónek](#)- izandako trukeak "bigarren mailako ahokotasun" gisa agertzen dira. Walter J. Ong-ek sortu zuen termino hori, gaur egun ahozko komunikazioa gailu elektronikoen, ahots-mezuen edo audio-oharren bidez nola egiten den alpatzeko; gutun bidezko erlazio epistolar bat da, ahots eta soinuaren bidez gauzatua.

[Lorea Alfaro](#) artista da. 2014an LA. Una marca hueca, LA (3l3a) jarri zuen martxan, irudia sortzeko ingurune babestu bat eratzeko modu gisa. Haren lanaren ezaugarri nagusia da edertasun lasai, biluzi eta zuzena agertzea.

[María García Ruiz](#) artista eta ikertzailea da, eta prestakuntza du arkitekturan. Haren proiektuek lurraldearen ekoizpena ikertzen dute, irudiaren, idazketaren eta ekintzaren arteko narratiba hibridoak artikulatuz. Gaur egun Hangar-en (Bartzelona) dago, egoiliar gisa bere praktika lantzen.

[Raquel G. Ibáñez](#) artista eta kuradorea da. Soinua, hitza eta irudi grafikoa ikertuz, atalaseak, mugako espazioak eta esperientzia izugarriak aztertzen ditu.

[Andrea Soto Calderón](#) filosofian doktorea da. Haren ikerketen ardatza da esperientzia estetikoaren eraldaketa, irudiaren eta bitartekoen azterketa eta estetikaren eta politikaren arteko harremana. Gaur egun ikerketa proiektu bat lantzen ari da La Virreina Centre de la Imatge-n (Bartzelona).

Urriaren 6tik aurrera hemen:
ivoox.com



**ATEAK
ZABALIK**
SORKUNTZA ARTISTIKORAKO

Urriak 6

Amalia Fernández

Neti Neti

Amalia Fernándezek hasiera emango dio **eszenAZen** denboraldi berriari *Neti Neti* bere azken lana Euskadin lehen aldiz aurkezten. Iraupen luzeko esperientzia eszeniko honetan, publikoak parte hartzen du ikuslea eta eszenan dagoen pertsona bereizten dituen horma zalantzan jartzten duen miaketa batean.

"Neti neti" terminoa hinduismotik dator eta "ez hau ez hura" bezalako zerbait esan nahi du. Ukazioz, jainkotasunaren esperientziara hurbiltzeko metodo bat da, dena erabat edukiz zehazki ez baita ezer. Obra «yogaren eta dantzaren arteko gurutzaketa bat da, eta ikusleari erakusten dio nola kontzientzia-egoera baten bidez bestelako kontzientzia-egoera batean sartzen den. Ikusgarriaren esparruan baino gehiago kokatzen da erritualaren esparruan», zehaztu du artistak.



Neti Neti



Osteguna, urriak 6.

Kubo Baltza* - Lantegia 1

17:00-21:00

Iraupena: 4 ordu

10€ / 8€ AZ txartelarekin eta tarifa murriztuarekin.

Tarifen inguruko informazioa azkunazentroa.eus webgunean

Erabili Bilbao Bonua AZ Infon sarrerak erosteko**

FITXA ARTISTIKOA:

Sorkuntza eta zuzendaritza:

Amalia Fernández

Interpretatzaileak:

Mónica Muntaner, Catherine Sardella, Ohiana Altube eta Amalia Fernández

Koproduzitua: Condeduque, Festival TNT eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao

ATEAK ZABALIK

SORKUNTZA ARTISTIKORAKO

Urriak 6
17:00-21:00

*Espazioaren babeslea:



KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SALA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

R Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU

**Kontsulta ezazu bonoen inguruko informazio guztia hemen:
www.bonobilbao.eus

eszen//AZ

Azkuna Zentroaren
arte eszenikoen denboraldia



2022ko urria > 2023ko ekaina

Antzerkia, dantza eta performancea
ikusteko beste modu bat

Guillermo Weickert

Parece nada

Parece nada Guillermo Weickert koreografo, dantzari eta aktorearen sorkuntza-sail baten parte da, zeinen ardatz tematikoa pertzepzio-organoek mugimenduarekin duten harremana den. «Gure zentzumenak mundura zabaltzen den gure ezagutza-leihoak badira, haien atzera-egitea eta behaketa geure burua ezagutzeko atea dira, eta horrek konektatzen gaitu eta geure baitara eramaten gaitu», azaldu du sortzaileak.

Bere lan berrian, Guillermo Weickertek gonbit egiten digu geure ikusmoldearen behatzaile izatera: pertzepzio-organoa (begiak) hautemandako objektu gisa (ikusiak) jartzeko saiakera. Behaketa simple horretatik abiatuta (gure begiek egiten dutena begiratzeari), ariketa bat planteatzen du eszenari, biztanleei eta mugimenduei ber-begiratzeko, munduari ematen diogun behakoa frogatzen gisa.

Ikusmena ebaluatzeko lau proba orokorren inguruan egituratua (ikusmen-zorroztasuna, errefrakzioa, ikus-eremua eta ikusmen kromatikoa) eta ikuslearen arreta lortzeko borrokatzea etengabe erronka egiten dion telebista-pantaila baten laguntzarekin, *Parece nada* lanak batez ere sortzailearen eta ikuslearen arteko topaketa proposatzen du, jolas bat, norbanakoaren pertzepzioaren labirintoaren barruko bidaia bat, gustu bat begiratzeari intimitatea partekatzen, eta begiratzeko zutzea bestean desegiteko, geure buruarekin topo egiteko.



Parece nada @ Marita Morera

eszen//AZ

Azkuna Zentzoko arte
eszenikoen denboraldia
2022-2023

////////////////////////////////////

Azaroak 3, osteguna

Kubo Baltza*

14€/12€ AZ txartelarekin eta
tarifa murriztuarekin.

Tarifen inguruko informazioa
azkunazentroa.eus
webgunean

Erabili Bilbao Bonua AZ Infon
sarrerak erosteko**

////////////////////////////////////

FITXA ARTISTIKOA:

Zuzendaritza, sorkuntza
eta interpretazioa:

Guillermo Weickert
Espazio eszenikoa, soinua,
argiztapena eta bideoa:

Benito Jiménez

ekoizpena: El Mandaito
Producciones S.L.

Egonaldiko espazioa: La
Fundición Antzerkia eta Cicus
- Sevillako Unibertsitateko
Kultura Ekimenen Zentroa

////////////////////////////////////

*Espazioaren babeslea:



KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



** Kontsulta ezazu bonoen inguruko
informazio gutzia hemen:
www.bonobilbao.eus

Manuel Rodríguez

Screensaver

Manuel Rodríguez *Screensaver* koreografia-instalazioa aurkeztuko du Azkuna Zentroan. Diziplina anitzeko proiektua da, eta performance batek eta pieza eratzeko prozesuan sortutako hainbat material bisualekin egindako argazki-serie batek osatzen dute.

Nazioartean sari ugari jaso dituen proiektu honek sakon aztertu nahi du nola lotzen den kontenplazioa izakiaren kontzientziarekin, nola zentzumenen, sinboloaren eta formaren bidez ekintza bisuala fede-ekintza bihurtzen den.

Rodríguezek, piezaren bidez, harremanetan jarri nahi ditu natural-naturala den zerbait, hain zuzen, gizakia, eta elementu artifizial bat, zehazki, software informatikoa.

Gorputzak pantaila-babesle gisa jokatzeko du, aktibatzen baita infiniturantz proiektatzen den plano kognitibo berri baterantz igarotzeko. Gorputz-pantaila paisaiaren gainean jartzen da, eta anfitrioi gisa gidatzen gaitu, ozta-ozta ikusten orekaren eta harmoniaren bilaketan.



Screensaver

eszen//AZ

Azkuna Zentroko arte
eszenikoen denboraldia
2022-2023

Azaroak 10, osteguna

Kubo Baltza*

14€/12€ AZ txartelarekin eta
tarifa murriztuarekin.

Tarifen inguruko informazioa
azkunazentroa.eus
webgunean

Erabili Bilbao Bonua AZ Infon
sarrerak erosteko**

FITXA ARTISTIKOA:

Sorkuntza, interpretazioa,
argazkia eta bideoa:

Manuel Rodríguez

Argiteriaren diseinua:

Xesca Salvá

Jantzien diseinua:

Moisés Nieto

Euskarria: Graner Centre
de creació, Festival Sálmon

2014, CND Cía. Nacional de

Danza, Centro Coreográfico

de la Gomera, Teatro Victoria

de Tenerife, Estudio DDZ

Headquarters, Centro

Coreográfico Canal, Conde Duque

- Coreógrafos en comunidad.

*Espazioaren babeslea:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIKUNTZA
POLÍTICA SALA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU



** Kontsulta ezazu bonoen inguruko
informazio guztia hemen:
www.bonobilbao.eus

Mikel R. Nieto

Presentense

Hotsetan. Musika esperimentaleko eta soinu-arteko programa

Mikel R. Nieto soinu-artistak lehen aldiz aurkeztuko du jendaurrean *Presentense*, erritmo kaxek dituzten presetei buruzko ikerketa bat, bere *ioio* proiektuaren esparruan. *Presentensek* eroso entzuteko moduko instalazio-formatu bat du, piezak irauten duen ia 13 orduetan sartu eta irten ahal izateko.

64 patroi erritmiko klasikoetatik abiatuta, soinu-instalazio honek giro-musika bihurtzen ditu horiek. Erritmo bakoitzak bere desagerpenerantz egiten du pixkanaka, eta, azkenean, giroko soinu-masa txiki bihurtzen dira.

ioio «No input mixing board» digitalean oinarritutako musika generatiboko proiektu bat da; Toshimaru Nakamura 1990eko hamarkadaren amaieran egindako lanei esker ezaguna da hori, eta «makinenzako makinien musika» dela esaten da.

Mikel R. Nieto 2004an hasi zen «no input» sistema horrekin ingurune digitalean lanean, eta 2015ean argitaratu zuen *Early Works* (2004-2009) lehen albuma. Urte berean, Blanca Rego artistarekin batera, «*Computer Music Studies*» proiektua sortu zuen.

MIKEL R. NIETO. Komisarioa, artista eta ikertzailea. Urteak daramatza praktika fonografikoan murgilduta, bai eta horren teoriar ere. Kultura-zentroetan eta unibertsitateetan eman ditu eskolak. Euskal Herriko Soinu Maparen (soinumapa.net) taldeko kidea da, bai eta Hots! Radiokoa eta mediateletipos.net hedapen-atarikoa ere. Gaur egun, Entzumen-behatokia koordinatzen du José Luis Espejorekin eta Xabier Erkiziarekin batera.




Urriak 21 > 23

Fernández del Campo Aretoa
Sarrera Doan



 mikelrnieto.net

 ioio.clickt



Núria Andorrà, Sergio Luque

Hotsetan. Musika esperimentaleko eta soinu-arteoko programa

Azkuna Zentroaren [musika esperimentaleko Hotsetan](#) programaren denboraldiak jarraipena izango du azaroaren 24an [Núria Andorrà](#) eta [Sergio Luqueren](#) kontzertuarekin.

[Sergio Luque](#) musika bokal, instrumental eta elektroakustikoaren musikagilea eta ikertzailea da. Ordenagailuz sortutako soinuetarako konposatu dituen lanen aukeraketa bat aurkeztuko du. Mikrosoinuaren sintesi ez estandarreko hainbat teknika erabiliz sortuak dira, besteak beste, lannis Xenakisen sintesi estokastikoa. Teknika horrek ausazko prozesuak erabiltzen ditu uhin-formak sortzeko eta aldatzeko.

Bestalde, [Núria Andorrà](#) perkusionista, inprobisatzaile eta konpositoreak [A Sola](#) bakarkako lana perkusio-instrumentuak tratatzeko ohiko metodoetatik aldenuz bere hizkuntzan egindako ikerketa baten emaitza da. Emanaldi honetan, artista bere tresnekin bakarrik agertuko da agertokian, bere beldurren amildegiari aurre eginez, deskribapenaren arabera. Etapa berri baten hasiera markatzen du, gonbit egiten baitigu entzute aktiboarekin ibiltzera eta sortzen duen musikarekin orain eragin trukea izatera.

© Sergio Luque



Azaroak 24, osteguna

19:00

Auditorioa*

10€/7€ AZ txartelarekin eta tarifa murriztuarekin.

Tarifen inguruko informazioa azkunazentroa.eus webgunean

Erabili Bilbao Bonua AZ Infon sarretak erosteko**



*Espazioaren babeslea:



**Kontsulta ezazu bonoen inguruko informazio guztia hemen: www.bonobilbao.eus

AZKUNA ZENTROA, ZINEMAREN LEKUA BILBON

Film Sozialak

Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia

Urriak 13>20

Zinemakumeak gara!

Emakumeek zuzendutako zinema erakustaldia

Urriak 24>28

Zinebi

Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak

Azaroak 11>18

Zinexit

Giza Eskubideen Zinema Erakustaldia

Azaroak 21>25

Cines Golem Alhóndiga

Zinemarekiko konpromisoa urte osoan

Donostia Zinemaldia

Azkuna Zentroan

Aurten ere, Donostian oihala jaitsi ondoren, Azkuna Zentroak, Donostiako Zinemaldiarekin lankidetzan, azken edizioan –70.a– estreinatutako zenbait film aurkeztuko ditu. Zuzendari Berriak, Perlak eta Zabaltegi - Tabakalera sailetan aurkeztutako bederatzir filmen programan, zuzendari ospetsuen nahiz zinemagile berrien lanak daude. Praktika zinatografikoa ulertzeko belaunaldi eta modu desberdinak dira.

Zinemaldiaren Bilboko zikloak –astebete irauten du– haurrentzako eta familientzako goizeko bi saio izango ditu asteburuan, eta bi film-emanaldi larunbat eta igandean.

Irailaren 26tik urriaren 2ra arte

Auditorioa

5€ / 4€ AZ txartelarekin

Sarrerak: Zinemako txarteldegia eta www.golem.es



Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

ASTELEHENA 26

18:30 · *Suro* (2022)

Zuzendaria: Mikel Gurrea
116' / JBGA
Sail Ofiziala

ASTEARTEA 27

19:00 · *Un beau matin* (2022)

Zuzendaria: Mia Hansen
Love
112' / JBGA
Perlak

ASTEAZKENA 28

19:00 · *Peter Von Kant* (2022)

Zuzendaria: François Ozon
85' / JBGA
Perlak

OSTEGUNA 29

19:00 · *Tori et Lokita* (2022)

Zuzendaria: Jean-Pierre
y Luc Dardenne
88' / JBGA
Perlak

OSTIRALA 30

19:00 · *Grand Marin* (2022)

Zuzendaria: Dinara
Droukarova
84' / JBGA
New Directors

LARUNBATA 1

18:00 · *Corsage* (2022)

Zuzendaria: Marie Kreutzer
113' / JBGA
Perlak

20:30 · *Le lycéen* (2022)

Zuzendaria: Christophe
Honoré
122' / JBGA
Sail Ofiziala

IGANDEA 2

18:00 · *La maternal* (2022)

Zuzendaria: Pilar
Palomero
100' / JBGA
Sail Ofiziala

20:30 · *L'innocent* (2022)

Zuzendaria: Louis Garrel
100' / JBGA
Perlak

CINE INFANTIL

LARUNBATA 1

12:00 · *Oltxiak* (2022)

Zuzendaria: Toby Genkel
86' / B Eus

IGANDEA 2

12:00 · *Tom & Jerry* (2022)

Zuzendaria: Kevin Costello
101' / B Eus

Somewhere from here to heaven


Zinema garaikideko zikloa

Somewhere from here to heaven ikus-entzunezko erakusketak **Bruce Baillien** –1960ko eta 1970eko hamarkadetak «ezinbesteko» zinemagilea izan zen, eta 2020an hil zen– unibertsoak inspiratutako belaunaldietako zinemagileen konstelazio bat marrazten du. AEBetako paisaien bere film lirikoak abangoardiaren zirkulutik harago doazen artisten –tartean, George Lucas eta Apichatpong Weerasethakul– inspirazio-iturri izan dira.

Proiektu horren esparruan, **Zinematekak** erakusketara gonbidatutako 4 artistari buruzko zine garaikideko ziklo bat eskainiko du azaroan. **Ana Vaz**, **Ben Rivers**, **Apichatpong Weerasethakul** eta **Eduardo Williams** dira artistak, eta Bruce Baillien beraren filmekin elkarrizketan egongo dira. Gainera, zinema historikoko ziklo bat egongo da (2023ko urtarrilaren 25etik otsailaren 8ra), 1960ko hamarkadaren testuinguru emankorrean sortutako filmak (beste behin) ikusteko. Garai horretan hasi ziren Bruce Baillie bera eta AEBetako zinemagileen belaunaldi bat zinema egiten; horietako asko Canyon Cinemak –zinemari lotutako erakusketa- eta banaketa-espazio bat, besteak beste Bailliek sortua– sortutako «familiari» esker.

////////////////////////////////////
Azaroaren 3tik eta 30era
Asteazkena eta osteguna
 19:00
Golem Alhóndiga Zinemak
 5€ / 4€ Az txartelarekin
Sarrerak: Golem Alhóndiga
Zinemetako txarteldegian eta
www.golem.es helbidean.

////////////////////////////////////
INFORMAZIOA
 16 mm-ko proiektzio guztiak
 eta digitalak jatorrizko
 bertsioan (JB) izango dira.
 Zinematekako programazioan
 aldaketak egon daitezke.
 + info: azkunazentroa.eus
 //////////////////////////////////////
 Zinematekaren *Somewhere*
from here to heaven zikloa
 2022ko urriaren 28tik
 2023ko otsailaren 26ra
 Erakustaretoan bisita
 daitekeen ikus-entzunezko
 erakusketaren parte da.
 Informazio gehiago 14. orrian



ZINEMA GARAIKIDEKO ZIKLOA

komisarioa: Garbiñe Ortega, Elías Querejeta Zine Eskolako kide hauekin lankidetzan: Eloísa Suárez, Inés Calero, Anais Cordova-Páez, Sofía Lena Monardo, Claudia Zegarra, Vilma Carla Martins.

PROGRAMA

Azaroak 2, asteazkena / 19:00

1. SAIOA: EMOZIOEN PAISAIA

[Little Girl \(1966\)](#)

Bruce Baillie. 10'

[Atomic Garden \(2018\)](#)

Ana Vaz. 7'

[Mr. Hayashi \(1961\)](#)

Bruce Baillie. 3'

[This is my Land \(2006\)](#)

Ben Rivers. 14'

[Castro St. \(1966\)](#)

Bruce Baillie. 10'

[Rousseau \(2012\)](#)

[Apichatpong Weerasethakul. 6'](#)

[All my life \(1966\)](#)

Bruce Baillie. 3'

Saioaren iraupen osoa: 53'

Azaroak 3, osteguna / 19:00

2. SAIOA: ASKATASUN- ETA POESIA-FORMAK

[Here I am \(1962\)](#)

Bruce Baillie. 10'

[13 Ways of Looking at a Blackbird \(2020\)](#)

Ana Vaz. 30'

[Ah, Liberty! \(2008\)](#)

Ben Rivers. 20'

Saioaren iraupen osoa: 60'

Azaroak 9, asteazkena / 19:00

3. SAIOA: GOGORATZEN DUTEN ESPAZIOAK

[Mass for the Dakota Sioux \(1963-1964\)](#)

Bruce Baillie. 20'

[APIYEMIYEKÍ? \(2019\)](#)

Ana Vaz. 27'

[A letter to Uncle Boonmee \(2009\)](#)

[Apichatpong Weerasethakul. 17'](#)

Saioaren iraupen osoa: 64'

Azaroak 10, osteguna / 19:00

4. SAIOA: ERORTZEN DEN ZERUA

[Amazing Fantasy \(2018\)](#)

Ana Vaz. 3'

[The House is quiet \(2020\)](#)

Ben Rivers. 5'

[Amerika: Bahía de las flechas \(2016\)](#)

Ana Vaz. 9'

[Tung \(1966\)](#)

Bruce Baillie. 5'

[Parsi \(2019\)](#)

Eduardo Williams. 23'

[Ashes \(2012\)](#)

[Apichatpong Weerasethakul. 20'](#)

Saioaren iraupen osoa: 65'

Azaroak 23, asteazkena / 19:00

5. SAIOA: GAZTETAKO AMETSAK

[Rolling \(2015\)](#)

[Apichatpong Weerasethakul. 3'](#)

[Me olvidé! \(2014\)](#)

Eduardo Williams. 30'

[M Hotel \(2011\)](#)

[Apichatpong Weerasethakul. 11'](#)

[Pude ver un puma \(2011\)](#)

Eduardo Williams. 17'

Saioaren iraupen osoa: 61'

Azaroak 24, osteguna / 19:00

6. SAIOA: MUNDUTIK URRUN

[Two Years at Sea \(2011\)](#)

Ben Rivers. 88'

Azaroak 30, asteazkena / 19:00

7. SAIOA: GAZTE LIKIDOAK

[El auge del humano \(2016\)](#)

Eduardo Williams. 100'

Irakurketa-kluba

Munduko literatura

Munduko literatura *irakurketa-klubaren* helburua da beste herrialde batzuetako literaturara hurbiltzea, horietako idazle garrantzitsuenetako batzuen bidez, eta **BBK Mediatekan** aktibatuko da.

Hilero, egile baten bidez, egile horren lana garatzen den testuingurura hurbiltzea proposatzen da, eta banaka irakurtzeko prozesutik eta talde-hausnarketatik sortutako kultura-paralelismoak eta -ezberdintasunak zehaztea.

PROGRAMA

Asteazkena, urriak 5 · 18:30

Andrés Neuman / Argentina
Una vez Argentina

Osteguna, azaroak 3 · 18:30

José Dalisay / Filipinak
Pasando el rato en un país cálido

Osteguna, azaroak 24 · 18:30

Antonio Lobo Antunes / Portugal
Esplendor de Portugal

////////////////////////////////////

Irailaren 22tik azaroaren 24ra

18:30 - 19:45

Mediateka BBK. TK201

Sarrera librea; aurrez izena eman behar da [AZ Infon](mailto:AZ.Infon@azkunazentroa.eus) edo azkunazentroa.eus webgunean.

////////////////////////////////////



Pasando el rato en un país cálido

"This is Basque Design" Merkatua

Azaroak 25, 26 eta 27
Ostiral, larunbat eta igandea
Kulturen ataria
Sarrera doan

dendAZ Azkuna Zentroaren denda atarira hedatuko da, **Bilbao Bizkaia Design Weeken (BBDW)** esparruan, Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak diseinua eta sormen-industriak, lurraldearen garapen ekonomikoaren eta nazioarteko proiektioaren funtsezko sektore diren aldetik, sustatzeko egin duten ekimenarekin bat.

dendAZ proiektua tokiko diseinatzaileak ikusaraztean eta diseinuak, sormenak eta artisau-lanak duten garrantziari buruzko sentsibilizazioan oinarritzen da.

dendAZ hogeita hamar sortzailearen baino gehiagoren produktuak aurki daitezke, eta atzean dagoen proiektu pertsonala eta profesionala, sormen-prozesuak eta horietako bakoitzean dagoen tokiko, artisautzako eta jasangarritasunarekin konprometitutako ekoizpena ezagutu.

Azaroak **This is Basque Design Merkatuan dendAZ**-en dauden sortzaileen proiektuak nahiz tokiko testuinguruko beste batzuenak daude. Programak parte hartzeko tailerrak ditu.

ATEAK ZABALIK

SORKUNTZA ARTISTIKORAKO

Urriak 6

Kulturen Atariko saltokia abian jarriko da.

dendAZ. This is Basque Design komunitatea:

Abana Bilbao, Ailanto, Amakuyi, Amarenak, Ane Pikaza, Angélica Barco, Cookplay, Eder Aurre, Elena Ciordia, Ekomodo, Espacio Aerre, Fabdefab, From The Basque Country, Higi Vandis, Katxi Klothing, Malús Arbide, Mario Gaztelu, Mario Paniogo, MRLASPIUR, Palo Palú, Pilar Morquillas, Proyecto Hemen, Susana Blasco, Tytti Thusberg, Yolanda Sánchez, Zioru, Ziriak.



BIME

All about music & more

Musikaren industriaren nazioarteko topaketa

Urriaren 26tik 29ra

bime.org



BERBAGUNEA

Euskararen inguruko topagunea

Azaroak 2 eta 3 asteazkena eta osteguna

bilbao.net




BILBAO EUROPEAN ENCOUNTERS

Europar Batasunaren etorkizunari buruz hausnartzen

Azaroak 17, osteguna

bilbaoeuropeanencounters.org



GLOBERNANCE

EUSKARALDIA

Hitzez ekiteko garaia

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

euskaraldia.eus





SORKUNTZA ARTISTIKOKO PROIEKTUAK

Sorkuntza garaikidean laguntzeko programa

Azkuna Zentroak Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentro gisa duen misioaren barruan dago sorkuntzan laguntzea. [2019-2023 Programa Proiektuaren](#) bidez, laguntza, konplizitatea eta elkarrekiko ekarpena dira prozesu artistikoen sustapenaren ardatzak.

Esparru honetan garatzen diren proiektuak diziplina anitzekoak dira eta programazioarekin lotuta daude: dantza, antzerkia, zinema, komikia, musika, letrak. Gainera, alderdi publiko bat dute beti, dela egindako lanaren bidez, dela sormen-prozesuen bidez. Artisten, ikertzaileen, kolektiboen eta publikoen komunitateen arteko topaketa horiek egonaldian zehar egiten dira, baina, batez ere, [Ate Irekien Jardunaldiaren](#) esparruan –urriaren 6an, ostegunean, egingo da–. Hurbileko sormen-ehuna nazioarteko kultura-ingurune homologagarriekin lotzea ere sustatzen da, trukeak, harremanak eta lankidetzira iraunkorrak eta elkarrekikoak bilatuz.

Batez ere ibilbide ertaineko artistei zuzendua, [Sorkuntzan Laguntzeko Programak](#) emaitzan eta prozesuan jartzen du arreta. Horretarako, zentroak espazio dinamiko bat izan nahi du, proba eta erroreko saiakuntzak eta ariketak egiteko baldintza egokiekkin, beste denbora batzuekin, sorkuntzak behar dituen denborekin, hain zuzen.

Sorkuntza artistikoa espazio guztietan gertatzen da, baita erakusketa-aretoan edo [Mediateka BBK-n](#) ere. Hala ere, [Lantegia](#), [Ideien laborategia](#) da sormenaren eta esperimentazioaren erreferentziazko espazioa Azkuna Zentroan. Bi solairuko eraikin bat da, eta ikerketarako, ezagutzarako eta praktika artistikorako zortzi laborategi, erakusketa-espazio bat eta eszenaratze garaikiderako agertoki

espezifikoa bat ditu. Lanerako habitat bat da, esperimentazio-tailer bat, eta harreman mota desberdinak ezartzen dira trukea, prozesuak eta sorkuntza artistikoa garaikidea errazteko. Bai eta leku ireki bat ere, sarbide librekoa, zentroan bizi den komunitatearen lana ezagutzera hurbildu nahi duten publikoen komunitate guztientzat.

Azken lau urteetan egonaldi berriak aktibatuta dira esperimentaziorako, hausnarketarako eta ezagutza partekaturako gune gisa. Gaur egun, Azkuna Zentroak sorkuntzan laguntzeko zortzi programa bultzatzen ditu, eta, horien bitartez, aurten eta datorren urtean, ia hogeita hamar proiektu aktibatuko dira:

Gonbidapen bidez

[Kolektibo egoiliarrak](#)

[Ikertzaile AZ Kideak](#)

[Artista AZ Kideak](#)

[Lanean. Laguntasuna prozesuetan](#)

Deialdi bidez

[Nazioarteko egonaldi gurutzatuak: Dantza, praktika artistikoak, komikia](#)

[Babestu. Sorkuntzan laguntzeko programa](#)

[Komisario Berriak. Komisariatza-egonaldia](#)

B Sabadell
Fundación

Banco Sabadell Fundazioak Babestu. Sorkuntzari laguntzeko programa sustatzen du, artea eta kultura bultzatzeko eta zabaltzeko duen programaren barruan.



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Egonaldi Artistikoen Programak Etxepare Institutuaren laguntza du.

BABESTU. SORKUNTZA GARAIKIDEARI LAGUNTZEKO PROGRAMA

Sorkuntza eta hedapen artistikoa sustatzeko urteko deialdia, hainbat diziplinarekin lotutako proiektuen bidez, Azkuna Zentroan garatu eta aurkezteko.



Victoria Ascaso *So Sad Today*

So Sad Today gaur egungo kultura digitalen inguruko ikerketa-proiektu transdiziplinarra da, eta mundu fisikoan garatutako identitateen eta pertsona bakoitzaren mundu digitaletan garatutakoen artean sortzen den frikzioa du ardatz.




M Benito Piriz *M1 C4R4 N0 P3G4 C0N 3ST3 MUNDO*

M1 C4R4 N0 P3G4 C0N 3ST3 MUNDO mugikorraren ohar-blokean idatzitako liburu bat da. Literaturaren egiturak hautsi, idazteko modu fresko eta erakargarri bat bultzatzeko, esaterako, mugikorraren hiztegi prediktiboa edo hizkuntza inklusiboa erabiltzea.



Blanca Ortiga *Shifter!*

Eskulturaren eta performatibitatearen arteko harremanpuntuan kokatzen den *Shifter!* ikerketa- eta sorkuntzaproiektuak desbideratzean jartzen du arreta, hor egoera eskultorikoak eta ekintza ingurune performatiboetan artikulatzen baitira.



Ander Pérez *Ágil y un placaje*

Ágil y un placaje proiektuak eta bera egiteko prozesuaren zati handi batek grabazioaren ezaugarriak eta mugimendua ikertzen ditu, jolasetik bertatik abiatuz, errealitatearen aldi baterako balio gabetzaile gisa hartuta. Prozesuaren fase honetan, grabazioetarako tresnak eraikitzean jarriko da arreta.



Macarena Recuerda Shepherd

Cosa. Intervenir un cuerpo
(*Gauza. Gorputz batean esku hartzea*)

Cosa. Intervenir un cuerpo esku hartutako gorputzari buruzko ikerketa bat da. Laborategi koreografiko bat, material eta objektu desberdinekin interpretearen gorputzari nola eragin dakioken ikertu nahi duena, irakurketa ugari sortuz.



Tunipanea *El íntimo ritmo del azar: diálogos entre máquinas imperfectas*

El íntimo ritmo del azar ikerketa artistiko pertsonaleko prozesua 2020ko maiatzean hasi zen, ziurgabetasun eta ezegonkortasun sozial handiko une batean. Soinu-instalazioa bezalako ingurune batean ausazkoa denaren kontzeptuak dituen aukerak esploratzeko motibazioa da abiaburua.

ARTISTA AZ-KIDEAK

Sorkuntzari laguntzeko programa, lengoia garaikideei buruzko inspirazio-iturri diren lanak egiten dituzten artistei laguntzen diena.



Elena Aitzkoa *Ur aitzak*

Elena Aitzkoa (Apodaka 1984) diziplina anitzeko artista da. Bere praktikak eskultura, marrazketa, poesia eta performancea batzen ditu. Haren sorkuntza-lanak ekosistema heterogeneo bat dira, eta ingurune gutxi-asko hurbileko elementu fisikoak eta emozionalak eta bizi-esperientziak dituzte oinarrian.



Laida Lertxundi

8 Topaketa

Laida Lertxundi (Bilbao, 1981) artista eta zinemagilea da. Zorroztasun kontzeptuala eta plazer sentsuala konbinatuz, bere filmak paralelismoak ezartzen dituzte lurraren eta gorputzaren artean, plazer- eta esperientzia-gune gisa.



Miguel García

Comclapompos. Usar el flujo como un cauce

Miguel A. García (aka Xedh) soinu-artista da. Bere lanak konposizioa eta inprobisazio lektroakustikoa hartzen ditu. Gailu elektronikoen hondakinetatik lortutako sonoritateak erabiltzen ditu esperientzia intimo, murgiltzaile eta bizi baten bila.



Ion Munduate *Rosas en el viento*

Ion Munduate (Donostia, 1969) Dantzan trebatutako diziplina anitzeko artista da. Blanca Calvorekin batera, 1994an lankidetzatza artistikoa hasi zuen, eta hainbat lan sortu zituzten. Aldi berean, Mugatxoan sortu zuten 1998an (Gure Artea 2015 saria), ikerkuntzan eta sorkuntzan oinarritutako prestakuntza-proiektua. Bere performance eta bideoak Europako hainbat espaziotan aurkeztu dira.

IKERTZAILE AZ-KIDEAK

Egungo sorkuntzaren inguruko analisia eta ekoizpena bultzatu eta sustatzeko programa, komunitate artistikoen, publikoen eta beste profesional batzuen arteko trukea errazten duena.


© Helena Goñi, 2021



Aimar Arriola *Un deseo de forma*

Aimar Arriola Forma desira proiektuan jarduten du, artearen eta queer perspektibaren arteko harremanaren inguruko ikerketan, Zentroaren programazioaren barruan sartuta, eta kultura bisualaren esparruko gorputz- eta artxibo-gaien inguruan egin duen lanik berrienarekin lotuko du, arteari eta plastikari buruzko gai espezifikoagoekin.

@ Lorea Alfiato, 2021



Isabel de Naverán *Uhina gogoan*

Isabel de Naverán *Uhina gogoan* ikerketa lana garatzen ari da. Arreta berezia jarriz gorputzaren pertzepzioan, zentzumenen lokailua den aldetik, proiektuak idazketa bat entseatu nahi du, aldi berean entzuteko gailu eta ikerketa-metodologia dena.

KOLEKTIBO EGOILARRA

Laguntzeko programa, hainbat forma eta begiradatatik beren lanean lengoaia artistikoetatik eta kultura garaikidetik hurbil dauden kolektiboek zuzendua.



Tractora Koop E. *Kinu*

Kinu plataforma **Tractora Koop. E.** artisten kooperatibako **Usue Arrietak** eta **Ainara Elgoibarrek** bultzatzen dute, artisten ikus-entzunezko ekoizpenak programatu, ikusi eta eztabaidatzeko.



Urbanbat. *Behatokia*

Hiri-berroneratze prozesuetako ikerketa eta bitartekaritarako **Urbanbat** bulegoak **Behatokia** programa garatzen du, hiria ikuspegi transdiziplinar batetik behatzeko hiri-ikerketarako laborategia.

Open call AZren deialdiak 2022 - 2023

Sorkuntza artistikoari laguntzeko programa proiektuak sustatzeko hainbat deialdiren bidez egituratzen da, laguntzan, konplizitatean eta elkarrekiko itzuleran oinarritutako estrategia batekin.

Ikusi oinarriak hemen:
azkunazentroa.eus

Erakusketaren saioa (1977-2017) Komisariotzako Nazioarteko Sinposioa

Komunikazioak aurkeztea

Azkuna Zentroak urriaren 28an irekiko du deialdia, [Erakusketaren saioa \(1977-2017\)](#) topaketaren bosgarren eta azken ediziorako komunikazioak aurkezteko. [Bulegoa z/b](#) eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao erakundeek elkarren artean antolatutako Komisariotzaren Nazioarteko Sinposio honek 1977az geroztik izan diren erakusketak zehatzak aztertzen ditu, urte horretan hasi baitzen, Franco "Bifo" Berardiren hitzetan, «etorkizunaren ondorengoa».

Azken edizio honek 2007-2017 hamarkada du ardatz. Urte horiek bat datoz "paradigma berria" deitutakoaren hasierarekin, 2007-2008ko finantza-krisiarekin abiatua, hurrengo hamarkadaren hasierako herritarren protesta-mugimenduekin jarraipena duena –Udaberri arabiarra, 15M, Occupy Wall Street– eta Donald Trump 2017an Estatu Batuetako presidentetzara iristearrekin amaitua.

Komisariotzaren mintegiak erakusketa-formaren hainbat alderditara hurbiltzea du xede: sortzen den baldintza historikoen emaitzan den objektu kulturala, hartzen dituen irudikapenak legitimatzen dituen forma instituzionala, esperimintatzeko eta pentsamendua sortzeko lekua, arreta emateko uneak ematen dituen gailu iragankorra...

Gonbidatutako sei ponentziez gain, programak lau komunikazio biltzen ditu, laburpenak berrikusi ondoren aukeratutakoak.

Laburpenak bidaltzeko epea: 2022ko urriaren 28a > 2023ko urtarrilaren 9a

**Kontsultatu deialdi
irekiak
azkunazentroa.eus
webgunean.**

Zinema-elkarrizketak. Argiak, kamera... ekin!

BBK Mediatekak zinema-zuzendariei buruzko beste topaketa-ziklo bat aktibatu du. Hileroko topaketa hauek ikus-entzunezkoen sorkuntzari eta sorkuntza zinematografikoari –egungoa eta klasikoa– buruzkoak dira, eta, horretan, Zentroko materialak erabiltzen dira.

PROGRAMA

Astearte, urriak 18 · 18:30

Francis Ford Coppola: *El Padrino*

Astearte, azaroak 15 · 18:30

Ander Gaztelu-Urrutia: *El Hoyo*

Astearte, abenduak 20 · 18:30

Richard Donner: *Superman*

////////////////////////////////////

Topaketak

Urriak 18

Azaroak 15

Abenduak 20

Astearte

18:30

Mediateka. TK101

Sarrera librea; aurrez izena eman behar da AZ Infon edo azkunazentroa.eus webgunean.

////////////////////////////////////



Ezinbesteko komikigileei buruzko elkarrizketak eta podcasta

Komikitekak komikigile garrantzitsuenak eta haien lanak ardatz dituen programazioarekin jarraitzen du, Mediatekako topaketen bidez, bai eta Azkuna Zentroaren webgunean entzun daitezkeen podcasten bidez ere.

PROGRAMA

Asteazkena, urriak 26 · 18:30

Rumiko Takahasi: *Ranma 1/2*

Asteazkena, azaroak 23 · 18:30

**Purita Campos: *Esther*, Carmen Barbará: *Mary Noticias*,
Trini Tinturé: *Emma es encantadora***

////////////////////////////////////

Topaketak

Asteazkena, urriak 26

eta azaroak 23

18:30

Mediateka. TK101

Sarrera librea; aurrez izena eman behar da AZ Infon edo azkunazentroa.eus webgunean.

////////////////////////////////////

AZ Irratia podcasta

azkunazentroa.eus/eu/
jarduera/komikiari-buruzko-
ezinbesteko-elkarrizketak/

////////////////////////////////////



Victoria Ascaso

Pretty Sad

Tailerra

Tailer honen helburu nagusia da hausnarketa kritikorako gune bat sortzea, gorputzaren kontzepzioari dagokionez, errealitate birtualen eta fisikoen artean sortutako frikzioari buruz.

Gure ahots grabatua entzuten dugunean, agian ez dugu gure burua hor ezagutuko; era berean, gure bizitza gehiena online bizitzean, zer ondorio du gure gorputz fisikoentzat gure irudi digitalarekin sortzen den disoziazioak? Bizi al daiteke perfekzio digitaleko distopia honetan, mundu fisikoak mindu gabe?

Lau saiotan aztertuko dugu zer aplikazio erabiltzen dugun, nola egiten dugun, zer funtzionaltasun duten. Instagrameko iragazkien aukerekin eta hainbat teknikekin esperimentatuko dugu, sare sozial batean ekintza artistiko bat egiteko.

Tailer hau *So Sad Today* proiektuaren parte da, gaur egungo kultura digitalen inguruko ikerketa-proiektu transdiziplinarra da.

VICTORIA ASCASO (Zaragoza, 1986). 2017az geroztik, prestakuntzan ikertzaile gisa lan egiten du UPV/EHUko Arte Ederretako Fakultatean. Haren lana praktika artistikoaren, diseinu espekulatiboaren eta ikerketa akademikoaren arteko topagunean kokatzen da. Hainbat jaialdi eta erakusketa kolektibotan egon da ikusgai, besteak beste, hauetan: Getxophoto, Tabakalera, MEM Jaialdia, Kaleartean, BideOtik, BLV- ART, Getxoarte eta Etopia. 2021eko sorkuntzari laguntzeko Babestu programan hautatutako artistetako bat da.

////////////////////////////////////

2022ko urriaren 10a, 11,
24a eta 25a

4 saio, 2 ordukoa bakoitza

Iparraquirre Aretoa

Ikastetxeekin itundua

Batxilergoko 1. mailako
ikasleei zuzendua.

////////////////////////////////////

**ATEAK
ZABALIK**

SORKUNTZA ARTISTIKORAKO

Urriak 6

18:00-20:00

Eguzkiaren pantaila

So Sad Today



Musika esperimentalaren hastapenetako tailerrak

Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa

Tailer teoriko eta praktikoa hauek [musika esperimentalaren eta soinu-artearen Hotsetan](#) programaren parte dira. Era ludiko eta atseginean, ikus-entzule gazteenek aukera izango dute soinu-esperimentazio musikalaren mugimendu eta ordezkaririk garrantzitsuenak ezagutzeko, eta soinuarekin eta haren pertzepzioarekin plastikoki esperimentatzeko.

Oraingoan, bi gonbidatuk parte hartuko dute tailerrean, eta beren soinu-lana erakutsi eta jarduera praktikoa batzuz proposatuko dituzte. [Jonathan García Lana](#) "Tunipanea" *k El íntimo ritmo del azar* proiektuan sartuko gaitu (AZn egindako egonaldia aprobetxatuz, [Babestu](#) programaren barruan); hor, soinua sortzeko prozesu gorabeheratsuak aktibatzen dituzten makinaren eraikuntzarekin ikertzen du. Eta [Iker Ruiz de Apodaka](#) "Judy" *k* soinua denbora errealean grabatzeko eta editatzeko tresnetera hurbilduko gaitu.

Edizio honetan irakasleei zuzendutako tailer bat ere proposatuko dugu. Bertan, gida didaktikoaren edukiak landuko ditugu, ikasgelara eraman ahal izateko.

OIER IRURETAGOiena (Erreteria, 1988) musika esperimental lantzen hasi zen, eta gero beste formatu batzuetara zabaldu da, hala nola eskulturara, testura eta bideora. 2011n Arte Ederretan lizentziatu zen UPV/EHU, eta 2018an Bruselako WIELS egonaldien programa osatu zuen. Bilboko Le Larraskito klubeko koordinatzaileetako bat da 2010etik.

IKER RUIZ DE APODAKA (Gasteiz, 1996) Soinu-materialekin lan egiten du gehienbat, bai zuzenean manipulatu eta erabiltzeko, bai digitalki prozesatzeko eta a posteriori akusmatikoki espzializatzen. Arte Ederrak ikasi zituen, eta, gero, Arteko Ikerketa eta Sormena masterra egin zuen UPV/EHU.

JONATHAN GARCÍA LANA (Belgika, 1985) Arte Garaikide, Teknologiko eta Performatiboko master bat du egina (UPV/EHU), eta bere interes artistikoko eremua osatu du elektronikara, robotikara, soinu, artisauteknika eta fabrikazio digitaleko teknikekin lotutako beste prestakuntza tekniko batzuekin. Babestu. Sorkuntza artistikorako laguntza-programaren 2021eko deialdian hautatutako artistetako bat da.

////////////////////
2022ko urriaren 25etik 28ra
Asteartea - ostirala

Lantegia 1

Ikastetxeekin itundua

////////////////////

PROGRAMA

Asteartea, Urriak 25

Tailerra Oier Iruretagoiena eta Tunipanearekin

LHko eta musika-eskoletako ikasleentzat.

Iraupena: 2 ordu eta 30 min

Asteazkena, Urriak 26

Tailerra Oier

Iruretagoienarekin

Ikasleei zuzenduta

Iraupena: 2 ordu (arratsaldeko ordutegia)

Osteguna, Urriak 27, eta ostirala, Urriak 28

Tailerra Oier Iruretagoiena eta Judyrekin

DBH eta Batxilergoko

ikasleentzat

Iraupena: 2 ordu eta 30 min

////////////////////

DJ Amsia

Música electrónica, silencio y ruido

Hotsetan. Musika esperimentaleko eta soinu-artekeo programa

Amsia aspaldi gertatu eta desegindako euskal musika (esperimentalaren) figura ezkutu esanguratsu horietako bat da. Bakartia eta erabat elektronikoa, gaur egun bere lana MIDI orkestrazioetan oinarritzen da, soinu sintetizatuekin, biniloekin eta sampler-liburutegiekin batera, emaitza kaotiko eta iragarrezineko soinu-collage batean; edertasun arraroko soinu-iruditeria desordenatu batean murgiltzen gaituzten musika dramatiko eta kezkarriak.

Música electrónica, silencio y ruido tailer teoriko-praktikoan, DJ Amsiak sintetizadorea protagonista duen musika elektronikoaren historia asmatua errepasatzea proposatzen du: jatorria, lehen soinu-makinak, osagai elektronikoak, asmatzaileak, aitzindariak eta artistak, ikuspegi ludiko-musikal batetik.

////////////////////////////////////

**Azaroak 16 eta 17
asteazkena eta osteguna**

16:30-20:30

Bastida Aretoa

15/12€

////////////////////////////////////

 amsia.org



AMSIA. Diziplina anitzeko soinu-artista, musikaria «zaratagilea» eta performerra. Jaialdi hauetan lan egin du, besteak beste: ERTZ, Confluencias, Mostra Sonora, Visual Convent Sant Agusti, Sonar, MAEM, Zemos 98, Festival Aparte, Mem, MACBA eta Fame05. Eta konpainia hauekin, besteak beste: La Fura dels Baus, Antonio Simón eta Porcópolis. Zenbait musika-lan argitaratu ditu, Corsal Desastrekin eta Artoartianekin editatuta. Soinu-sorkuntzan aritzeaz gain, Iruñeko irudi- eta soinu-prestakuntzako CTL eskolan eskolak ematen ditu.



Bisita programa

Azkuna Zentroan edukitzaileak eta edukiak bat egiten dute arkitekturekin, historiarekin eta arte-sorkuntzarekin. Beraz, espazioaren eta programazioaren bidez deskubritzeko eta esperimintatzeko lekua da. Proiektu hau zer testuingurutan garatzen den jakiteko eta Zentroa bisitatzen duten pertsonen esperientzia hobetzeko, eraikinean bisitaldi gidatuak egiteko programa eta ibilbide iruzkinduak erakusketan zehar garatzen dira.



Bisita gidatuak eraikinean zehar

Ordubeteko bisita honetan, Bilboko Alhóndiga zer izan den eta zer den azaltzen da: hiriko ardoen, olioaren eta ozpinetakoen biltegia zena, gero Gizarte eta Kultura Garaikideko Zentro bihurtua.

Partikularrak

Asteartea eta asteazkena:
17:30 (euskara), 18:30 (gaztelania)

Taldeka

Eguna eta ordua adostuz, gutxienez
72 ordu lehenago



Bisita iruzkinduak erakusketan zehar

Ordu erdiko sarrera-ibilbideak, unean-unean Zentroan ikusgai den erakusketa testuinguruan jartzeko. Erakusketa bakoitza azaltzen duten audiogidekin osa daitezke, eta horiek webgunetik deskarga daitezke.

Ostegunero, 18:00etan
eta 19:00etan (euskaraz
edo gaztelaniaz,
eskaeraren arabera).

Deribak

Espazioan eta pentsamenduan esperientzia desberdin bat izatea nahiago dutenek *Deriben katalogoa* eros dezakete, Azkuna Zentroko artista Az-Kide **Oscar Gómez Matak Espe López** artistarekin batera landutakoa.

Egonaldian, Oscar Gómez Matak esperientzia-trantsituak eta -deribak eraiki ditu, eta horietan, oinez ibilita, loturak ezartzen dira hiri-paisaiaren eta pertsona bakoitzaren barne-bizitzaren artean. Pasieran ibiltzea eta pentsamendua beste leku batera igaro dadin uztea, inguratzen gaituena beste modu batean hautematea eta norberak duen lekuaz jabetzea errealitate dei dakiokkeen gauzen edo ehunen jarioarekiko.

Deriben katalogoa eskuliburu bat da, egoera, egun eta umore desberdinetarako asmatutako ibilaldi horiek guztiak erabiltzeko.

dendaz.azkunazentroa.eus webgunean eta zentroko dendAZ saltokian dago salgai euskara-gaztelaniaz eta frantses-ingelesez argitaratutako kaxa-liburu hau.



Deriben katalogoa.

////////////////////////////////////
Informazioa AZ Info /
azkunazentroa.eus
////////////////////////////////////

Mediateka BBK

Topaketa eta ikaskuntza

Mediateka BBK topaketarako eta ikaskuntzarako toki bat da, eta kulturarako sarbide bibliografikoa, ikus-entzunezkoa eta bizipenezkoa eskaintzen du.

Mediateka BBK Konektatu, Pentsatu eta Sortu programaren bidez –ikastetxeei zuzenduta dago–, ikasleek eta irakasleek irakurzaletasuna, kultura digitala eta sorkuntza artistikoa ezagut ditzakete, gizarte eta kultura garaikideko zentro batean txertatutako hezkuntza-baliabide baten bidez.

////////////////////////////////////

Ikastetxeekin itundua

2022ko urritik 2023ko maiatzera
Astearte, asteazken eta ostegunetan,
9:30etik 11:00etara

Harremanetarako informazioa eta erreserbak:
94 612 43 67 / mediatekabkk@azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////

Espazio bibliografikoak

Mediateka BBK-ko lehen eta bigarren solairuetan irakurgai-, musika-, zinema-gomendioak aurki daitezke. Espazio horiek ezagutzeak hilero aukeratutako gaiak eta eskuragarri dauden materialak ezagutzeko aukera ematen du.

Ordu erdiko bisitak hilean bi egunetan egiten dira, 18:00etan, [Mediateka BBK-ko](#) sarreratik abiatuta.

////////////////////////////////////

Espazio bibliografikoen bisitak

Urriak 10 eta 17
azaroak 14 eta 21
Abenduak 12 eta 19
Astelehena

////////////////////////////////////

Osasun Premium: Ariketatik harantz

Jarduera Fisikoko Zentroak **Osasun Premium** jarriko du abian urrian, 60 urtetik gorako pertsonak artatzeko programa integrala, haien bizi-kalitatea hobetzeko, ezagutzak eta gaitasunak emango dizkieten jardueren eta tailerren bidez.

Osasun Premium programarekin, arreta pertsonalizatua eskainiko da, nork bere bilakaera gauzatu ahal izan dezan jarduera-intentsitate desberdinekin, eta aukeratutako ikastaroak egiteko ordutegi erosoan, bai igerilekuan, bai gimnasioan.

Osasun Premium-ak eskaintzen dituen zerbitzuak:

- Gimnasia sarrera, lurrean eta uretan zuzendutako jardueraz gain.
- Jarraipen pertsonalizatua:
- Denboraldi hasierako eta amaierako egoera fisikoaren proba
- Datu medikoak biltzea Training Gym-ekin
- Gluzemia (hilero)
- Tentsioa (hilero)
- Inbody (hilero)
- Jardueraren batera joatearen aldizkako segimendua

Osasun Premium jarduerak:

- Osasun Funtzionala
- AquaSalud
- Osasun Igeriketa
- Igeriketa terapeutikoa
- Osasun Aquadantza
- Aquafitness
- Osasun Kardiohegatsak
- Poolbike
- Osasun Streching
- Osasun Fitpilates
- Osasun Dantzazum
- Osasun Big Dance
- Osasun Pilates
- Osasun Yoga
- Sasoian egoteko osasun gimnasia
- Multigym

Tarifak:

41,80€

65 urtetik gorakoentzako deskontua:% 25

Leku mugatuak:

Programan parte hartzen duten pertsonei ahalik eta arreta onena eskainiko zaiela bermatzeko, edukiera mugatua da

AZ argitalpenak

Azkuna Zentroaren argitalpenek praktika artistiko garaikidea jasotzen dute, ezagutu eta zabaltzeko.

Azkuna Zentroa argitalpenak

• **dendAZ, Azkuna Zentroaren Saltokian**

• **dendaz.azkunazentroa.eus-en**

erosi ditzakezu

Datozen argitalpenak:



ERAKUSKETAREN KATALOGOA

Una voz para Erauso. Epílogo para un tiempo trans
Cabello/Carceller

Eus. / Cas. / Ing.
Orrialdeak: 316
24€



FANZINE

Consejo de sabias
Sra Polaroiska

Eus. / Cas.
Orrialdeak: 70
16 x 16 cm
14€



LIBURU-OBJEKTUA

Catálogo de derivas
Oscar Gómez Mata - Artista AZ-kidea - eta
Esperanza López

Eus. / Gas. - Ing. / Fra.
20 orrialdeko liburutxo bat, 12 diptiko, 11 txartel
eta gutun-azal eta hiru zabaltzeko-orri, guztiak
diseinu-kutxa batean
25€



LIBURUA

Arquitecturas prematuras. Valcárcel Medina
Isidoro Valcárcel Medina

Eus. / Cas. / Ing.
Orrialdeak: 96+96+80
Kutxa + hiru koadernotxo
49€



Eskerrak eman nahi dizkizuegu

lurraldearekin duten konpromiso sozialetik, laguntzen diguten erakunde pribatu eta publikoei, gizartea kultura garaikidearekin lotzeko dugun eginkizunean.

Sare irekia gara

aartearen bidez gizarte sortzaileagoa, kritikoagoa eta anitzagoa sortzen laguntzen duen proiektu batean parte hartu nahi duten erakunde guztientzat.

ZENTROAREN ORDUTEGIA

Egunero 9:00etatik 21:00etara.

BISITA GIDATUAK

BISITA GIDATUAK ERAIKINETIK

Ordubeteko ibilbidea Alhóndigatik, eraikinaren historia, eraldaketa eta egungo proiektua ezagutzeko.

Partikularrak

- Asteartea eta asteazkena, 17:30 (eusgara), 18:30 (gaztelania).
- Sarrera dohainik, AZ Infon, 944 014 014 telefonora deituta edo info@azkunazentroa.eus helbidean izena eman ondoreen.

Taldeka

- Eguna eta ordua adostuz, gutxienez 72 ordu lehenago, AZ Infon, 944 014 014 telefonoan edo info@azkunazentroa.eus helbide elektronikoaren bidez.
- Prezioak:
Euskaraz edo gaztelaniaz: 60 € taldeentzat.
Ingelesa edo frantsesa: 70 € taldeentzat.
Elkarte eta ikastetxeentzat (aldez aurretik kontsultatu).

ERAKUSKETARAKO BISITAK

- Ordu erdiko sarrera-ibilbideak, erakusketa-gelan ikusgai den erakusketa testuinguruan kokatzeko .
- Ostegunero, 18:00etan eta 19:00etan (euskaraz edo gaztelaniaz, eskaeraren arabera).
- Sarrera dohainik, AZ Infon, 944 014 014 telefonora deituta edo info@azkunazentroa.eus helbidean izena eman ondoreen.

Edukiera: 10 pertsona.

Kopuru hori aldatu egin daiteke osasun-egoeraren bilakaeraren arabera.

AZ TXARTELA

Az Txartelak aukera ematen dizu kultura, gizarte eta ariketa fisikoko jarduerak biltzen dituen eskaintza zabalaz gozatzeko gure zentroan. Zentroko Txartelarekin, jarduera guztien inguruko informazioa jasoko duzu aldizka, eta deskontu eta abantaila interesgarriak lortuko dituzu. Txartela emateak eta behar denean berritzeak 3 euroko kostua du.

Gogoan izan Az txartela pertsonala eta besterenezina dela. Zurekin ekarri behar duzu beti, AZ Infon sarrerak erosterakoan deskontuak izateko.

GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu golem.es webgunean.

YANDIOLA, THE BOAR, HOLA BAR

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu yandiola.com webgunean.

IRISGARRITASUNA

Azkuna Zentroa errespetuzko gunea da, irekia eta guztientzat irisgarria. Espazioa eta programazioa etengabe hobetzeko lan egiten dugu, publiko-komunitate guztiek esperientzia gogobetzekoa izan dezaten, sorkuntza-prozesuetan parte hartu ahal izan dezaten eta kultura baldintza berdinetan probatu, partekatu eta gozatu ahal izan dezaten. Xehetasun bereziren bat kontsultatu nahi baduzu, zatoz AzInfora, Atarian dagoen informazio-gunera.



Azkuna Zentroak Irisgarritasun Unibertsaleko AENOR ziurtagiria du, UNE 170001-1 arauaren arabera.

HILEKO PROGRAMAZIOA **AUDIOZ**

Audio formatuan deskarga dezakezu:
soundcloud.com/azkuna-zentroa



KONTSULTATU PROGRAMAZIOA **HEMEN: AZKUNAZENTROA.EUS**



Jar zaitez harremanetan

Az-rekin

info@azkunazentroa.eus



Lege gordailua BI-249-2014

© 2019. Centro Azkuna de Sociedad y Cultura Contemporánea S.A.

B

Bilbao

gizartea eta kultura garaikidea

azkunazentroa.eus

